16.zk
2004

Nafarroako Eskola Kontseilua
Aldizkari Berri-Emailea

Editor

Estatuko eta Autonomietako Eskola Kontseiluen XIV. Topaketen Ondorioen laburpena. Salamanca, 2003. urteko maiatzean.

"Inmigrazioa eta hezkuntza. Hezkuntza Erkidegoaren Eskuartzea"

2. zatia (Lehendabiziko zatia aurreko 15. zenbakian argitaratu zuten).

Oharra: XIV. Topaketen Ondorioen eta Nafarroako Eskola Kontseiluak egindako txostenaren testu osoa gure web orrian kontsultatzen ahal dute : www.pnte.cfnavarra.es/consejo.escolar.navarra

XIV. Topaketen laburpen honen lehenengo zatian emigrazioak Espainian aldaketa demografiko handiak eragin dituela baieztatzen genuen, aldaketok garapen sozial eta kulturalari buruzko erronka handiak ekarriko dituztela. Besteak beste, Giza Eskubideen testuinguruan aukera-berdintasuna eta kultura artekotasuna bermatuta egongo diren gizarte bidezko eta solidarioagoa lortzeko kultura-aniztasuna geure gain hartu eta bideratu behar dugu.

Erronka horiek hainbat oinarri orokor (1. zatiaren laburpenean adierazi zituzten) eta inmigrazioari, informazioari, zabalkundeari eta sentsibilizazioari buruzko politika orokorreko zenbait ekintza definitzea eta errespetatzea eskatzen dute (biak laburpenaren lehen zatian zabal zehaztu dituztela).

Ekintza horiek ikastetxean ere garatu behar dituzte, irakaskuntza-ikaskuntzari dagokionez jarduketei eragin behar dizkiete, Hezkuntza-komunitatearen partaidetza eta heziketa, eskolako programa eta material zehatzen diseinua sustatu behar dituzte, eta giza baliabideak, baliabide materialak eta ekonomikoak aplikatzea agindu behar dute. Biztanle etorkin helduen hezkuntza-premiak ere ezin ditugu ahantzi.

Azkenik, jarduera hauek guztiek ebaluatzeko prozesu objektiboa izan behar dute, horrek adierazle zehatzak izan behar dituela. Hori guztia eskola kultura arteko hezkuntzaren esparru funtsezkoetako bat delako arautu gabeko hezkuntzako bestelako batzuekin batera. Hala ere, hain konplexua den proposamen hau aurrera eramateko egiazko gaitasuna ematea beharrezkoa da. Hori dela-eta, autonomia ezinbesteko elementua da ikastetxeetako jarduera orientatzeko, izan ere, ingurunearekin harreman malguagoa izatea ahalbidetzen baitu eta etorkinen premia zehatzei egokituago dauden hezkuntzako erantzunak sortzea errazten du, halaber, hezkuntzako kalitatearen kudeaketa eragingarria izan dadin lortzeko oinarrizko baldintzetako bat ere bada.

Eskolako kultura autonomo honen esparruan ikasle hauen premiei kasu egiteko egitasmo zehatzak garatzea eta sortzea sustatu behar dute. Horretarako, Administrazioa aipatutako proiektuak diseinatzeko, gauzatzeko eta baloratzeko prozesuan hasiera batetik inplikatuta egon dadin behar-beharrezkoa da.

Eskolako kultura arteko etika gizarte demokratiko eta solidario baten berezkoa da eta begirunean eta elkarrizketan hezita dauden herritarrak lortzeko oinarriak jartzen ditu. Jatorriko kultura errespetatzea beharrezkoa da, kultura artekotasunak hartzen duen gizarteari eta etorkinei eragiten baitie. Horren ondorioz, elkar aberastea errazten duten neurriak hartzea beharrezkoa da, jatorriko kulturen partaide ere izango garela eta beren alderdi antropologikoak, hala nola bere erlijioa, hizkuntza, ohiturak, elikadura, gizarte-harremanak,... etab., kontuan hartzen ditugula. Errealitate hori ikastetxeetako erakunde-planteamendu ezberdinen bidez zehaztu behar dute: Hezkuntza Proiektua, Kurrikuluko Proiektua, ,,, etab.

Ikastetxeak ikastetxearen planteamendu global eta mal-

Diseinua eta Maketaketa: Gráficas Publicitaria Zikiro, Garella 10 Arazoan Bazkuna Eskola

ditor

gua ekartzen duen ereduan sakondu beharko luke, dauden irizpideak talde baztertu hauen, berezko ezaugarriak dituztenen, ikasteko lehentasunezko premiei egokitzeko gai izan beharko litzatekeena, gainera, ikastetxeak dituen desberdintasunak orekatzeko jarduketen barruan egon beharko litzateke.



Kultura arteko Zentroko Proiektua ikasgelaren esparruan zehazten da, lehenik ikasleek beraiek ematen dituzten erreferente kulturaletan oinarritzen den ikasteko esparrua sortzen dutela. Horrela bakarrik ikasleek termino eta kodeen, eguneroko bizitzaren arazoei aurre egiteko erabiltzen dituzten eta eskolako esparruan lanak egiteko erabiltzen dituztenen, justaposizioa izan dezaten saihesten ahal dugu.

Bigarrenik, eta aldi berean, erreferente kultural ezberdinak bateratu eta elkarri eragin diezaiotela sustatzen dutela. Komunikazioa eta interakzioa egiazkoak diren, nortasun kulturalaren berezko adierazpena posible den, adierazpen hori zilegitzen, baloratzen eta kritikoki baloratzen duten, kulturen hautematean eragina duten balore ideologikoak txalotzen dituzten, azken batean, norberaren nortasun kulturala eraikitzea posible den eta aldi berean inguruan ditugun eskema kulturalen kontzientzia izateko gaitasuna eskuratzen duten harremanen esparrua beharrezkoa da.

Ikastetxeen autonomia kontuan hartuta, hezkuntza-proiektuan, tutoretzako ekintza eta orientabideko planean, barne erregimeneko araudian, eskolaz kanpoko jardueretan eta ikastetxearen beraren antolaketan ekintzak egitea beharrezkoa izango da.

Irakasleen funtzioak zeregin garrantzitsua egiten du. Beraz, ikasle etorkinei kasu egin beharra dela-eta, irakasleek ahalegin berezia egin beharko dute, ahalegin hori aitortu beharko diete, besteak beste, lan-baldintzak hobetzen dizkietela (baliabideak, espazioak, antolaketa,... etab.), horrela, hauen ordutegia egokitzea erraztuko dute taldeko lanarekin lotutako zereginak hobeki egin ahal izateko, hala nola: irakasleak koordinatzeko bilerak, tutoretzak, kurrikuluko materiala egitea,... etab. Kultura arteko hezkuntzari buruzko programa zehatzak garatzen dituzten irakasleen taldeen jarraipena eta egonkortasuna, dagozkien pizgarrien eta baita beharrezkoak diren profil profesionalen bidez , sustatzea gomendagarria izango litzateke.

Ekintzen artean, irakasleen heziketa pertsonala eta psikopedagogikoa lehenestea premiazkoa da ikasleekin lotura positiboak finkatzeko eta gure beharra duten herritarrak, guk beraien beharra dugun bezalaxe, gizarteratzeko tresna eraginkorra den aldetik kultura arteko hezkuntzak denontzat dakartzan abantailak deskubritzeko eta gure gain hartzeko. Aipatu duguna irakasleei prestakuntza eskaintzeko zentroetako ikasketa-planetan operatiboa izan beharko litzateke. Ondorioz, gai hau irakasleen eta nahasita dagoen hezkuntza-komunitatearen hasierako eta etengabeko prestakuntzan sartu beharko genuke.

Ditugun baliabideak funtsezkoak dira, hala giza baliabideak nola materialak eta ekonomikoak. Administrazio Publikoek kultura arteko eskola guztientzat maila pertsonalean eta sozialean aberasgarria dela baina nahitaez neketsua dela kontzientzia hartu behar dute; kultura bakarreko eskola tradizionala baino askoz handiagoa den inbertsio eta zuzkiduren maila eskatzen du. Giza baliabideak izan behar dira batik bat, horrela, taldekatzeko forma malguak eta banakako tratua eta baita kultura ezberdinen eragile adierazgarrien partaidetza ere bete ahal izateko, hori guztia tresnen baliabideak behar bezala eskaintzen dituztela .

Azkenik, ebaluazioak etorkinak osotasunez gizarteratu ahal izateko finkatu dituzten helburuak eta xedeak zenbateraino bete dituzten ezagutzeko prozesuari bukaera eman behar dio. Horretarako, Ebaluazio eta Jarraipeneko Batzordea eratu ahal izango dute; berau Hezkuntzako Administrazioetako ordezkariek, bereziki Hezkuntza-Komunitateko sektoreetakoek eta inplikatuta dauden Administrazioetakoek, osatuko dute.

kasg

San Cernin Ikastetxea. Eskarmentua Kalitatean

San Cernin Kooperatiba 1974. urtean eratu zuten guraso batzuen ekimenez, hauek ikastetxerik gabe geratu ziren bere alabak eskolatzen zituzten moja frantsesen kongregazioa Iruñetik joan zirelako (garai hartan neskak bakarrik). Berau Sociedad Cooperativa de Enseñanza Centro de Cultura Francesa (Irakaskuntzako Kooperatiba Elkartea Frantziako Kultura Zentroa) delakoaren izenean sortu zuten, eta 1997. urtean aldatu zuten eta jarri zioten gaur dagoen SOCIEDAD COOPERATIVA DE ENSEÑANZA SAN CERNIN (SAN CERNIN IRAKASKUNTZAKO KOOPERATIBA ELKARTEA) delakoa. Jarduera, funtsean, 3 urtetik (Haur H. 1.) Batxilergoko 2. mailara bitartekoa da. Ikasleak 1500 baino gehixeago dira. Kooperatibak bultzatutako San Cernin Fundazioaren bitartez ere musika, kirol, lankidetza, boluntariotza,... eta abarreko jarduerak egiten dituzte.

Ikastetxearen Hezkuntza Proiektuak batik bat hizkuntzaren (egitasmo eleanitza) eta metodologiaren (teknologiak eta berrikuntza didaktikoa) alderdiak azpimarratzen ditu tutoretzak kontu handiz zaintzearen bidez banakako jarraipenari arreta berezia eskaintzen diotela.
Kalitatearen aldeko apustua etengabeko hobekuntza sistematizatzeko bidea horixe dela jakitearen ondorioa da eta, horrela, arlo ezberdinetan jarduteko helburu zehatzak finkatzen dituzten ebaluatzen eta eguneratzen dituzten lan-prozesuak garatzen dituztela. Aurreneko pausua Ereduan prestatzea izan zen CECEko Hezkuntza Tekniken Erakundearen bitartez (irakaskuntzako patronala), jarraian lehendabiziko Kalitate Batzordea eta hobetzeko talde ezberdinak osatu zituztela. Egun, Batzordeak jarduera ezberdinak koordinatzen ditu, prozesuak eta prozedurak bultzatzen ditu, hobetzeko ekipoak sortzen ditu,... etab.

Prozesua oso neketsua izan da eta oraindik bada. Irakasleentzat oso lan-metodologia berria da eta horregatik Ereduan prestakuntza emateko eta mentalizatzeko lana arras garrantzitsua da. Hori lortzeko estrategia lan hori eskakizun berritzat ikusi beharrean eguneroko egin-kizunetan erabilgarria eta onuragarria izango zaien zerbait bezala ikus dezaten saiatzea da. Esperientzia oso emankorra izaten ari da. Eredu hau, ISO ziurtagiria ez bezala, momentu zehatz batean ateratako argazkia

San Cernin, Ikastetxea



San Cernin, Ikastetxea

baino ez dena, guztiz bizia da eta behin eta berriz aztertzea eskatzen du. Gainera, horrek dituen irizpide ezberdinek erakunde osoa hartzen dute, beraz, kalitatearen kudeaketa osoa gertatzen da.

Ikastetxean, lehenik eta behin, San Cernin ikastetxearen "ezaugarri bereizgarria" osatzen duten arrakastako faktore kritikoak zehaztu dituzte . Horren ondorioz, funtsezkoak diren hainbat prozesu zehaztu dituzte (Hezkuntza proiektua, Tutore-lanaren programa, Hizkuntza-proiektua, Proiektu Informatikoa) eta horietan oinarrituta arloetan sartuta dauden prozesuak ere zehaztu dituzte (matrikulazioa, langileak, hezkuntza-eskaintza, dokumentuen kudeaketa, estrategia eta urteko plana, irakasle-plangintza...) eta azkenik, lan-prozedurak idatzi dituzte. Kasu bakoitzean bete behar dituzten helburuak, inplikatuta dauden arduradunak, garatuko dituzten lanak, horiek ebaluatzeko neurgailuak eta berriz aztertzeko eguna. Hezkuntza-zerbitzuaz zuten pertzepzioa hobetu dute eta lan-prozedurak sistematizatu dituzte, etengabe hobetzea ahalbidetzen duten helburu zehatzetara bideratu dituztela. Lan-metodologia aldatu da arazoak gure "eragin-zirkuluan" konpontzen dituztela, horrela, konponbidea kontrolatzen ez ditugun eragileek dutela ez dugu pentsatzen, helburuak lortzeko eta prozesuen bidez lan egiten dute, aldakortasuna murriztu dute, hezkuntza-zerbitzuaren estandarrak finkatu dituzte, hobekuntza indibidualak kolektibo osoan aplikatu dituzte. Horren guztiaren emaitzak zerbitzu hobea ematea, gurasoek eta gizarteak duten pertzepzioa ere hobetzea eta etorkizuneko berme izatea dira.

Kooperatibaren helburu estrategikoa bi urtean behin gutxienez kanpoko ebaluazio bat egitea da, horrek hobetzeko datuak eskuratzea eta, beharrezko izatekotan, kanpoan ere ezagutua izan dadin ahalbidetuko du. Orain arte jaso dituzten aintzat hartzeak honako hauek dira:
- Hezkuntzako Kalitatearen Saria 1999 – 2000, MECD izenekoak emana

- EFQM ereduaren araberako kudeaketa egiteko sistema dela-eta maila Aurreratuan (Achievement) jasotako aintzat hartzea, Kalitaterako Nafarroako Fundazioak 2001. urtean emana
- Kudeaketa egiteko sistemagatiko Europako Kalitatearen Zigilua BVQIren ebaluazioaren arabera, Kalitatea Kudeatzeko Klubak emana.

Francisco José Flores Pérez
Iruñeko "San Cernin" Ikastetxeko Kudeatzailea.

kasg

Bikaintasunaren Sariak: "Iturrama" B.H.I., "Plaza de la Cruz" B.H.I., "Navarro Villoslada "B.H.I..

1998-1999 ikasturte aldean Nafarroako hainbat institutuko zuzendarik Irakasleei Laguntza emateko Zentroak antolatu zuen "Zuzendaritzako Taldeak eta Hezkuntza Kalitatea" ikastaroan parte hartu genuen. Bukatutakoan, parte hartu zuten zentroetako batzuek, horien artean zuzentzen ditugun hiru Institutuak zeudelarik, kalitateari buruzko prestakuntza jarraitzea , praktikan jartzea eta sare bat osatzea erabaki genuen, horren helburua gure zentroetan, industria eta zerbitzuetan dauden ereduekin bat datozen kudeaketa egiteko sistemak ezartzea dela, hori bai, hezkuntzaren alorrari egokitzen zaizkiola.

Egun, institutu hauek N1 Sarea deitutakoan sartuta daude, horretan, guztira, sei zentro daude: Berako Toki Ona, Basoko, Donapea, Iturrama, Navarro Villoslada eta Plaza de la Cruz. Hilero lana, modu kooperatiboan, planifikatzeko eta gure esperientziak eta praktika onak elkarri trukatzeko biltzen gara.

Urte hauetan zehar, bi ildo jorratu ditugu: batetik, ikastaroak eta prozesuak kudeaketa egiteko sistema estandarizatu batera, ISP 9000 metodologiarekin bat datorrenera, egokitu ditugu, horrela, sareko lau Institutuk ISO 9001 ziurtagiriari, 2000 bertsioan, helduko diogu heldu den urtarrilean.

Bestaldetik, EFQM kudeatzeko ereduari, aurrekoaren osagarri denari, heldu diogu, horrek institutuen ikuspegi oso eta globalagoa eskaintzen digu. 1999. eta 2001. urteetan auto-ebaluazio bana egin zituzten EFQM ere-

Iturrama, B.H.I.

duaren arabera. 2002. urtean, Iturrama, Navarro Villoslada eta Plaza de la Cruz institutuek, Memoria bat aurkeztu eta ebaluazio egokia egin ondoren, Konpromisoko Diploma jaso zuten Kalitaterako Nafarroako Fundazioak emandako Bikaintasunaren Sariaren deialdian. Aurten, 2003. urtean, sareko beste hiru zentro gehiagok urte honetatik aurrera Fundazioak ematen duen Brontzezko Kategorian Saria jaso dute:

Plaza de la Cruz, B.H.I.

Berako Toki Ona, Donapea, eta Iturrama institutuak, azkenak aintzat hartzea berriz hartu duelarik.

Ibilbide honetan, SAREKAren ereduak, eskarmentua eta laguntza izan ditugu, berau Gipuzkoako Lanbide Heziketako Institutuetan kalitatea bultzatzen duen erakundea delarik.

Kalitatea kudeatzeko sistema gure zentroetan ezartzerakoan zein dira kontuan hartzen ari garen ikuspegiak? Horri buruz honako oinarri nagusiak nabarmendu nahiko genituzke:

Lehenik eta behin, gure zentroak hobetzeko industriaeremu eta zerbitzuen sektoreko enpresa eta erakundeetan zabalpen handiena duten bi tresnak aplikatzen ari gara: ISO eta EFQM. Zuzentzen ditugunak baino lehen, bestelako hezkuntza-zentroek eredu hauek hezkuntzaren mundura egokitzea bideragarria eta egingarria dela frogatu dute.

Eredu horiekin bat etorriz, gure ikuspegia intereseko taldeen gogobetetzea lortzera bideratuta dago: langileak, irakasleak direnak eta ez direnak, eta ikasleak eta bere familiak , eskaintzen duten hezkuntza-zerbitzuaren onuradun nagusiak diren aldetik. Gainera, gizartea, hezkuntza-administrazioak, aurreko eta ondorengo ikastetxeak, erreferentea dira gure eguneroko lanean.

Urtero, intereseko taldeen gogobetetasun-maila neurtzen dute inkesta eta galdera-sorta errazen bidez, horiek ikasleak, bere familiak eta langileak ikastetxeko alderdi esanguratsuenekin pozik dauden neurtzea eta, gainera, prozesuak hobetzea ahalbidetzen duten iradokizunak bil-tzea ahalbidetzen dute.

Zentro publikoak diren heinean, kudeatzeko sistema berriak bultzatzeko metodoa enpresa pribatuetan ez bezalakoa da. Institutuan lan egiten duten pertsonen, eta, zehazki, irakasleen, laguntza eta onespena izan behar dugu. Jakin badakigu denak konbentzitzea ezinezkoa dela eta beti egongo dela gure kudeaketa zalantzan jartzen edo arbuiatzen duenik. Baina, oro har, langileen laguntza eta profesionaltasunak hobetzeko proiektu

berriak ezartzea ahalbidetu dutela adieraz dezakegu, dela eguneroko irakasle-lanaren bidez dela hobekuntza-taldeetan parte hartzearen bidez .

Irizpide nagusitzat, ikastetxearen helburua edo zergatia ikasleei heziketa osoa ematea da. Helburu hori, Hezkuntza sailaren menpe dauden ikaste guztiek (publikoek eta itundutakoek) dutena, nahitaez egin behar duten dokumentu batean bilduta dago, Ikastetxearen Hezkuntza Proiektua (IHP) alegia. Institutuek IHP kalitate osoko ikuspegi batetik berriz formulatu dute, epe luzean aurrera egitea ahalbidetzen duten Helburua, Ikuspegia, Baloreak eta arrakasta ekarriko duten faktoreak identifikatu dituztela. Abiapuntu hau dugularik, halaber, epe ertaineko Plan Estrategikoa egin dute, Urteko Planean urtero hedatzen dutena.

Institutuek zerbitzu bat eskaintzen dute: ematen dituzten ikastaroak. Ikastaroak enpresa bateko katalogoko produktuen baliokideak izango lirateke. Horregatik, ikastaroak kalitateko zehaztapenen eta irizpide edo adierazleen bidez zehaztu ditugu (eskola-orduak, ematen dituzten edukiak, eskolako arrakasta...) Adierazle hauek, zenbatuta, ikastetxeko jarduera hartutako konpromisoetara egokitzen den neurtzea ahalbidetzen dute.

Ikastaroez gain, bestelako zerbitzuak ere eskaintzen dituzte ikasleen eta intereseko beste talde batzuen beharrak eta espektatibak asetzeko asmoz, hala nola garraioa, orientabide eta tutoretza, liburutegia, jarduera osagarriak, eskolaz kanpokoak eta kirolekoak, ikasgelak eta guneak erabiltzea,... etab.

Ikastaroak emateko hainbat prozesu daude, garrantzitsuena irakaskuntza-ikaskuntzako prozesua da, horren barruan ikasleak hartzeko (garrantzitsuago sartu berriei dagokienez), materiak programatzeko (irakatsi behar dutena), ikasgelako jarduerak edo eskolak emateko, ikasleak ebaluatzeko, tutoretza eta orientabideko prozedurak daude. Irakaskuntza-ikaskuntzako prozesu honek irakaskuntza-plangintzako (taldeak eta ikastorduak antolatzea, ikasgelak eta irakasleak asignatzea), langileak kudeatzeko (hartu eta prestakuntza ematea), baliabideak kudeatzeko (asignazio ekonomikoak, mantentzea) edo erosketetako jardueretan du oinarria. Kudeatzeko sistema ikastetxeko prozesu nagusi guztiak Deming delakoaren PDCA hobetzeko zikloaren arabera sistematizatuta ditu: planifikatzeko baliozkotzat zutena bildu dute eta hobekuntzak sartu dituzte, prozesu bakoitzeko kalitateko adierazle batzuk finkatu dituzte eta ebaluatzen dute, aurreikusitako helburuak erdiesten ez dituztenean zuzentzeko ekintzak gaineratzen dituztela.

Erakunde guztietan bezala, emaitzak nahi dituzte. Oro har, prestakuntza arautuari dagokionez, ikastetxeek hezkuntza-sistemaren emaitza globaletan ere bere ekarpena egin behar dute. Horretarako helburuak misio eta estrategiaren arabera zehaztu ditugu. Horien artean emaitza akademikoak daude, ikastetxe batean funtsezko eta oinarrizko lorpenak direnak, baina, gainera, xede estrategikoek zehazten duten norabidean aurrerapena baloratzea ahalbidetzen duten horiek ere badaude.



Navarro Villoslada, B.H.I.

Halaber, eta sistemak zentroei eginkizun soziala ematen diela kontuan hartuta, hezkuntza-behar bereziak dituzten ikasleekin lan egiten dute eta era askotako ahalmenak dituzten ikasleak hartzen dituzte, Aniztasunari Arreta emateko Planarekin bat etorriz .

Ezinbestez, urte hauetan jarraitutako prozesuak honako galdera egitera eramaten gaitu: kudeatzeko sistema hauek ezartzeak gure institutuetan egiazko hobekuntza ekarri al du?

Zuzendariak garen aldetik, erantzuna baiezkoa da; horrela egiaztatzen duten kanpoko adierazle eta ezagutzak ditugu. Egindako ahalegina oso handia izan da. Akatsak egingo genituen, kalitatea kudeatzeko sistema ez dago guztiz ezarrita eta egiteko lana geratzen da. Hala ere, bikaintasuna helburu dugularik, etengabe hobetzen egoteko jarrera izaten dugu. Jarraian, ondorioetako batzuk azalduko ditugu:

Zuzendaritzako Taldeetan, lan egiteko metodo baliozkoa aurkitu dugu, epe luzean gure lanaren eta gure eginbeharra zuzentzen duten ildo estrategikoen ikuspegi argia eman diguna. Dagoeneko ez ditugu intuizioaren arabera plangintza egiten eta urte baterako ohizko aukerak zabaldu dira .

Prozesuen kudeaketak gure Institutuak antolatuago egon daitezen eragin duela ulertzen dugu. Ikastetxean lan egiten duten pertsona guztiek, zuzendaritzako karguek, Sailburuek, tutoreek, ... etab.ek, jarduteko eremua eta ardurak zehaztuta dute. Horrek, adibidez, arazoak gutxiago izan daitezen eta irakasle berriak anitzez arinago egoki daitezen ahalbidetzen du.

Ikastetxeetako barneko ebaluazioaz aspaldidanik hitz egiten dute. Hala ere, ez zuten deus egina horri buruz. Egun, neurketak eta inkestak gure zentroetan arrunta bilakatu dira, ez ikuskatzeko, baloratzeko, zuzentzeko eta hobetzeko baizik. Dagoeneko ez dugu presioek bultzatuta funtzionatzen, ebidentziek baizik.

kasge

Azkenik, sareko lanak gure Institutuetan espiritu kooperatibo handia sortu du. Zuzendaritzako Taldeen bakartasunetik edo balizko lehiakideen aurreko mesfidantzetatik lana banatzera eta elkarrekin auzokoaren praktika onak ikastera igaro gara. Lankidetza hau egon ezean, ibilitako bidea egitea ezinezkoa izango zen.

Gerardo Ollo Escudero.
"Iturrama" B.H.I.ko Zuzendaria
Julio Urtasun Echeverría.
"Plaza de la Cruz" B.H.I.ko Zuzendaria
Miguel Ángel Zabalza Cruchaga.
"Navarro Villoslada" B.H.I.ko Zuzendaria

Familien poza Irabian

Irabian beti arreta berezia jarri diogu familien poz edo gogobetetasunari gure jarduteko modua berraztertzeko eta gure lana bere behar eta premiei hobeki erantzuteko moduan jartzeko. EFQM Ereduaren araberako lehendabiziko ebaluazioa egin baino lehen adierazle zuzenak eta zeharkakoak erabiltzen genituen, zenbatzen zailak zirenak.

Aurreneko auto-ebaluazioaren ondorioz, gurasoei aldizkako inkestak igortzen genizkien bere gogobetetasuna neurtzeko bide ona zelakoan. Familien inkestak hiru urtean behin egingo genituela erabaki genuen. Izan ere, aldi txikiagoetan gogobetetasuna nabarmen ez dela aldatzen pentsatzen baikenuen. Aurretik ezarrita zeuden gogobetetasuna neurtzeko bestelako sistemak ere bere horretan utzi genituen.

Familia eta orientatzailearen arteko elkarrizketa da ikastetxea familien gogobetetasunaren gaineko datuak biltzen joan den eta gurasoek bere erantzunei zuzenean onura ateratzen dietelako garrantzi handia ematen dioten bitarteko nagusia, berau urtean eta familia bakoitzeko 3 elkarrizketako maiztasunez egiten ohi dute. Halere ezin dugu esan oso adierazle zehatza denik. Izan ere, ez baitute eskala zehatz batekiko neurtzen. Hala Baina familiekin zuzenean harremanetan jartzeak oso informazio baliotsua ematen digu ikastetxearekin pozik dauden jakiteko.

1999-2000 ikasturtean zehar Lehen Hezkuntzako eta DBHko familiei lehendabiziko inkesta egin zieten eta hurrengo ikasturtean zehar Batxilergo familiak ere kontuan hartu genituen. Inkesta horiek 2002-03 ikasturtean zehar maila guztietan errepikatu zituzten, Haur Hezkuntza eta Eskolaurrean barne. Erantzunen indizea aski handia izan da eta maila bakoitzean %70 ingurukoa izan da. Inkestaren erantzunak biltzeko prozesuak erabateko anonimotasuna bermatzen du, hori ezinbestekoa delarik inkestan zintzotasun-indize handia lortuko badugu.

Lehen Hezkuntzan egindako inkestan 28 alderdi ezberdin eta DBH-Batxilergoko inkestan 20 jorratu dituzte. Bi inkestetan dauden 15 alderdi komunak dira eta gainerakoak etapa zehatzaren berezkoak dira. Inkestak diseinatu zituzten Hobekuntzako Taldeek hezkuntza-etapa bakoitzaren helburuak aintzat hartu zituzten, beraz, inkesta bakoitzean aztertutako gaiak helburu horien arabera aldatzea erabaki zuten.

Etapa bakoitzaren guraso eta irakasleek , Ikastetxeko Kalitate sailak eta Zuzendaritzako kide batek Hobekuntzako Taldeak osatu zituzten, inkestak egiteko prozesuan zehar kanpoko aholkulari batek laguntza eman ziela.

Inkestetan jasotako informazioa gure Arrakastako Faktore Kritikoak kontuan hartzen zituztela antolatuta dago gurasoen iritzia baloratzen lagungarri izan dakigun. Hututako kalitateko ereduak adierazten duen bezala, adierazle-mota hauen bitartez neurtzen ahal ditugun Arrakastako Faktore Kritikoak bakarrik kontuan hartu ditugu (Esate baterako, ez genuke asmatuko I+G bezeroen gogobetetasunari buruzko inkesta baten bidez neurtuko bagenu).

Inkestaren barruan familiei Ikastetxearekin lotutako edozein alderdiri buruzko oharrak, iradokizun zehatz edo irekiak baina agerikoak egiteko eskatu zieten. Helburu horrekin idatzizko 4.600 ohar baino gehiago bildu zituzten eta zenbakizko datuak interpretatzen askotan lagundu zuen ondorioak egiteko prozesu xehatua finkatu zuten.

Bere guraso eta irakasleentzako atsegin nagusia ikasleak pozik egotea da

Gurasoek ikastetxearekin duten gogobetetasuna, oro har, 8,6koa da (4,3 5etik), guretzat egunean-egunean egindako lanaren adierazgarria dena.

Inkestek gogobetetasuna neurtzeaz gain, familiek faktore bakoitzari ikastetxea, oro har, ongi joan dadin ematen dioten garrantziaren berri ere ematen dute. Bi inkestasorta egin ondoren hobetu beharreko faktoreak zein diren adierazteko honako metodoa zehaztu dugu:

- Item bakoitzari puntu bat ematen digu honako irizpi-

kasg

deetako batekin izandako egokitzapen bakoitzeko.

1. Garrantzi handien duten faktoreetako 50 pertzentilaren barruan egotea.
2. Gogobetetasun txikien duten faktoreetako pertzentilaren barruan egotea.
3. Garrantzi-gogobetetasunaren diferentziala gutxienez 0,5 puntuetakoa izatea.
4. Aurreko inkestaren aldean garrantzi-gogobetetasunaren diferentziala 0,25 puntu okerrera egin izana.

• Puntuazio txikienetik handienera antolatzen dituzte

Metodo horren bidez garrantzia, gogobetetasuna, diferentziala eta bilakaera kontuan hartzen dituzte

Sistema hau aski selektiboa dela ikusi dugu. Azkeneko inkestan ez zen egon 4 puntu eskuratu zituen faktorerik eta bakar batek baino ez zituen hiru izan.

Iñaki Iraola Arnedillo
Kalitate Zuzendaria Irabia Ikastetxea

oroa

Erkidegoz kanpoko etorkinak gizarteratzeko politiken porrota gizarte-kohesioak gure erkidegoan aurrean duen arriskurik handiena da.

Nafarroan 1999. urtetik aurrera gure erkidegoan finkatu diren garapen-bidean dauden herrialdeetatik datozen herritarrak anitz eta azkar ugaritu dira. 2000. urteko urrean erroldatuta zeuden 14.500etatik 2003. urteko urtarrilean zeuden 35.500etara igaro dira. Horrek esan nahi du Nafarroan erroldatuta dauden biztanleen 6,1 direla. Horrek Estatuko batezbestekoaren gainean eta, ziur aski, proportziorik handiena duten autonomia erkidegoen artean jartzen gaitu (2001. urtean Madril zen proportziorik altuena zuen hirugarren erkidegoa zen Melilla eta Balearrak ondoren, erkidegoz kanpoko etorkinen %6,8 zuelarik).

Nafarroako lau etorkinetatik hiruko jatorria lau herrialde dira(Ekuador, %33; Maroko, %12; Kolonbia, %13; Aljeria, %7).

Dei-efektua Nafarroan dauden senideek, lagunek eta bere ezagunak diren herrikideek osatutako sareak dira eta lana aurkitzeko aukera dagoela jakitea dira (hasiera batean lan irregularra izan arren).

Azkeneko urteetako fluxua oso bizia izan bada ere, tokiko mailan finkatzeko prozesuak Espainiako hego-ekialdeko edo Kataluniako beste eskualde batzuetan bizitako gatazkak izan gabe gertatzen ari dira.
Arazo nagusietako bat gure herrialdeko inmigrazio-ereduaren ezaugarri bilakatu den irregulartasuna da. 2000, urtean gure erkidegoan finkatuta zeuden erkidegoz kanpoko etorkinen %43a egoera irregularrean zegoen (ez dute lan egiteko edo egoitzako baimenik ez dute), 2001. urtean zifra hori %60ra iritsi zen. Horrek etorkinen kolektiboa ahultasun-egoera larrian jartzen du, gizartean eta lan-merkatuan murgiltzeko prozesuak biziki zailtzen dituena.

Gizarte-errealitate berri honek hartu duen garrantzia dela eta, aurre egin behar zaio. Etorri berri diren komunitateen kultura eta ezaugarrien inguruan ezjakintasun arras handia dago. Gizarteratzeko estrategia eraikitzen laguntzen duen hausnartzeko eta aztertzeko ahalegina egitea premiazkoa da.

Espazio bakoitzean garatzen duten bizikidetza-dinamikak herritarrek izango dituzten erreakzioak zehaztuko ditu eta oso goizetik landu beharreko zerbait da.

Erkidegoz kanpoko etorkinak hartzeko eta gizarteratzeko politiketan porrota izatea, momentu hauetan, herrialde honetako gizarte-kohesioak aurrean duen arriskurik handiena da.

Nafarroako Parlamentuak, administrazio zentralak autonomia erkidegoei asignatzen dien ardurarekin bat etorriz, 2002. urteko urrian Etorkinak Gizarteratzeko Plana

onetsi zuen, berau gizarte-erakundeen eta administrazio eta sail ezberdinen partaidetza eta adostasuna zituztela egin zuten, beraren bidez arlo ezberdinetan hainbat neurri zehaztu zituzten (enplegua, etxebizitza, osasuna, hezkuntza edo gizarte-ongizatea). Plan honetan integrazioaren eta kultura artekotasunaren aldeko konpromisoa modu argian agertzen da, horretaz gain, etorkinen erregulazioaren aldeko eta eskubideen berdintasun osorantz aurrera egiteko apustua egiten du.

Inmigrazioaren fenomenoak gure erkidegoan izan duen garrantzia kontuan hartuta, Plan honetan jasota dauden konpromisoak lortzeko, eraginkortasunez aplikatzeko eta Gobernua eta atal ezberdinak benetan inplikatzeko bidean jartzea urgentea da.

Hezkuntzako gainerako atalek bezalaxe, errealitate berri honi aurre egin behar dio. Izan ere, hezkuntza gizarteratzeko estrategien barruan hezkuntza ardatz giltzarria bilakatu baita. Ikastetxean integratzea etorkizunean adin txikiko hauen gizartean integra daitezen lortzeko aurreneko urratsa da.

Inmigrazioak aldaketa handiak eragin ditu eskolako esparruan. Iragan ikasturteko ekainean Hezkuntza sailak ikasgeletan etorkinak ziren 4.700 ikasle zeudela jakinarazi zuen, lautik hiru azkeneko hiru ikasturtetan heldu direla.

Ikastetxeek oso ahalegin handia egin behar izan dute ikasle berri hauen etorrerari erantzun ahal izateko. Zailtasun handiei, batik bat hizkuntzarekin eta ikasle berrien etengabeko etorrerarekin, ikasturte osoan zehar etenik izan ez duenarekin, zerikusia dutenei, aurre egin behar izan diete, horrek bere ikastetxeetako antolamenduaren barruan behin eta berriz aldaketak egitera eraman ditu. Bere banaketa orekatzeko neurri eraginkorrak hartu ez dituztela kontuan hartuta, egoera okerrera egiten du ikasle etorkinen proportzioa handia den ikastetxeetan.

Horrek guztiak, fenomenoaren berehalakotasunarekin, irakasleak aurre egiteko behar bezalako prestakuntza ez izatearekin eta ikastetxeek izan dituzten laguntza urriekin batera, hainbeste eskatzen duten kultura artekotasuna lortzeko bidean aurrera egitea eragotzi dute, egun, hura diskurtsoetan baino ez dagoelarik.

Ikastetxeek zailtasun handiak dituzte ikastetxeari kultura arteko gune bihurtzeko egiten dizkioten eskaerak eguneroko jardunera eramateko. Irakasleek prestakuntza eta laguntzak falta dituzte. Ikastetxeek egungo praktika pedagogikoei buruz hausnarketa egiten laguntzen dituzten eta, era berean, errealitate berriei eta eskolei egiten dizkieten eskaera berriei dagokienez egokiagoak diren praktika berriak diseinatzen eta sartzen ere laguntza ematen dieten espezialistak behar dituzte.

Gaur egun irakasleei eskaintzen dieten prestakuntza, neurri handi batean, ikuspegi teoriko batetik egiten dute, baina esku hartzeko prestakuntza teknikorik izan gabe, horrek eraginik gabeko neurri bihurtzen duela. Irakasleen eman beharreko prestakuntzak ikastetxe bateko premietan izan behar du abiapuntu, bertako langile guztiak kontuan hartu behar ditu eta teoria, praktika, hausnarketa, ikerketa eta ekintza uztartu behar ditu.

Ikastetxe bakoitzak integratzeko bere estrategiak diseinatu behar ditu, bere inguru sozial hurbilenean (auzoa edo udalerria) diseinatutako estrategiekin komunikazio, koordinazio eta lankidetza egokia izaki egin behar dituztenak , horietan, gainera, gune zehatz horretan esku hartzen duten gizarte-eragile guztiak nahasita egon behar dira (ikastetxeak, gizarte-zerbitzuak, guraso-elkarteak , auzo-elkarteak, gazte-elkarteak, etorkin-elkarteak,... etab.)

Ikastetxean, bestelako esparru batzuetan bezalaxe, integrazio-prozesu eskasa gertatzen da. Analisi xehekatuagorik ezean, gure erkidegoko hainbat ikastetxeri egindako lehen hurbilpenak langile etorkinen seme-alabak eskolatuta daudela, erregulartasunez joaten direla baina kolektibo batzuetan 16 urte egin baino lehen eskola ustea ohizkoa bilakatzen ari dela, bigarren hezkuntza bukatu ondoren eskola-porrota handia dela eta derrigorrezko hezkuntzaren ondoren ikasketak egiten jarraitzea, talde batzuetan izan ezik, oso praktika bakana dela ikusi ahal izan dugu. Gauza horiek zerbait ez dabilela sobera ongi agerian uzten dute.

Integrazioaren bide zuzenean goazela aditzera emango lukeen adierazle argia urte batzuen buruan egun eskolan dauden neska eta mutil etorkinen artean honakoak aurkitzea izango litzateke: maisuak, erizainak, ingeniariak,... etab. (neska eta mutil hauek bere gurasoek egun egiten dituzten lanak ez direnak ere egiteko aukera izan dezaten). Hezkuntzako goi mailetan sartzea, beraz, gizarte-multzo hau gizartean gora egin dezan ezinbesteko baldintza eta bazterkeriari aurre egiteko esparru estrategiko bihurtu da. Integratzeko estrategiak diseinatzeko eta ezartzeko egun egiten dugun ahalegin eta inbertsioak ondorio nabarmenak izango ditu etorkinen etorkizunean eta baita guztion etorkizunean ere.

Balbina Liberal Artaiz. Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gizarte- lanaren Saileko Irakasle Elkartua

ersoi

Santiago Arellano Hernández jauna, INECSEren Zuzendaria.

Hiru legegintzalditan zehar Nafarroako hezkuntza-politika izena izan du, Santiago Arellanorena Zuzendari Nagusia den aldetik, denboraldi horretan Hezkuntza eta Kultura Saileko arduradunak izan diren bi Kontseilariekin batera: Javier Marcotegui eta Jesús Laguna.

Santiago Arellano Hernández Jn.

Santiago Arellanori buruz hezkuntza-sistemaz duen ezagupen sakona nabarmendu behar dugu, ikuskatzaile gisa, zenbait ikastetxetako zuzendari gisa eta zuzendari nagusi gisa izan duen esperientziaren ondorioz eskuratu duena; baina agian gehien nabarmentzen dena irakasle izatea da. Arazo errealak bere gain hartzeko adimena, irtenbideak proposatzeko adorea eta legea irakurtzerakoan duen espiritu-askatasuna, uneoro ikasgelaren errealitatearen zerbitzuan egon dira. Agian horregatik izan dituen lorpenen artean akordio zabalak lortu izana dago, hala orden politikoan nola sindikalean; hala irakaskuntza publikoaren esparruan nola pribatukoan.

Nortasun handiko gizona delarik, bere lan-estiloaren bidez, aldiz, funtsean partaidetza sustatu du, giza harreman maitekorrak batutako profesionalen taldeak osatzea beti bilatu duela. Hori Administrazioan nahi genukeen bezain ohikoa izaten ez denez, bere oihartzuna kanpora ere naturaltasunez iristen zen eta , horrela, beste Erkidego batzuetako arduradunek eta Kirol, Kultura eta Hezkuntza Ministerioan ezagutu eta miresten zuten; era berean, nabaria zen Zuzendari Nagusiak bere Kontseilariarekin, Gobernuaren hezkuntza-politikaren azkeneko arduraduna zenarekin, zituen harreman estua eta leialtasuna.

Azkeneko hamabi urteetan zehar hezkuntzako administrazioek LOGSE aplikatzeko eta garatzeko erronkari aurre egin diote. Prozesu horretan Nafarroa nahitaezko erreferentea bilakatu baldin bada, neurri handi batean, Santiagok izandako eginkizunari esker izan da. "Legearekiko eta ikasgelako errealitatearekiko begirunea" lelotzat zuela, lanari arduraz ekin zion, zalantzak eta alferrikako atzerapenak izan gabe (agian erosoagoak izango zirenak): eskolako mapa berria egitea, sare publikoa inbertsioko plan eskuzabalaren bidez finkatu duela eta sare pribatua saneatuz, horren hogeita hamar zentro baino gehiago itxi zituela; irakasleak, ahalik eta lasterren, berriz banatzea, irakasleen ziurgabetasuna ezabatzeko, eta sindikatuen laguntzarekin; hezkuntzako etapa berriak diseinatzea eta kurrikuluak berriz ikustea,... etab.

Denbora horretan Hezkuntzako zuzendaritza nagusiak egin duen guztia arretaz aztertzen baldin badugu, zalantzarik gabe, hartutako erabakiak beti bi printzipioren barruan sar ditzakegula ikusiko dugu: hezkuntza-sistemaren kalitateko printzipioa eta aukera-berdintasunarena. Gobernuak hezkuntzaren alde egin duen apustu ausartak eta eskuzabalak kalitateko hezkuntza-sistema garatzea ahalbidetu du –instalazioetan, langileen ekipamendu eta zuzkiduran-, horretan bereziki aniztasunari kasu egiteko neurriak eta hezkuntzako premia bereziak dituzten ikasleen tratamendua nabarmentzen dira. Horrek Santiago Arellanoren pertsonalitatearen ezaugarri nagusia ere aditzera ematen du: gizakia eta hezkuntzaren profesionala den aldetik ahulenekiko kezka.

Fernando Carbajo López
Irakaslea. "Félix Urabayen" B.H.I. Iruñea.

Bi Irakasle on: Luis Antonio Montes jauna eta Miguel Ángel Ederra jauna.

Hamasei urtera arte derrigorrez eskolatu beharrak eta adin horren ondoren ere izaera orokorra izateak egungo ikasgeletan orain dela gutxi ez zegoen ikasleen aniztasuna egon dadin eragin du. Bigarren Hezkuntzan ikasleak bereziki heterogeneoak dira, ahalmen ezberdinak, ikasketaren aurreko jarrera ezberdinak, ikasteko erritmo ezberdinak eta baita jatorriko kultura ezberdinak dituztela. Hezkuntza-sistema emeki ikasleen errealitate soziologikora egokitzen joaten da ibilbide didaktiko ezberdinak ezartzearen bidez eta giza baliabideak, baliabide materialak eta antolatzekoak eskaintzearen bidez. Ikastetxe bakoitzak , bere eskumenen barruan, planteatutako zailtasunei aurre egiten dieten sormenezko neurriak egiteko ahalegina egiten du.

Hala ere, prozesu osoaren gakoa oraindik ere irakaslea izango da.
Gaur atzo bezala.

2003. urteko udazken honetan itzal handiko bi irakasleren heriotzaren berria heldu zaigu: Luis Antonio Montes Andía jauna eta Miguel Ángel Ederra Zalba jauna. Biak ala biak XX. mendeko bigarren erdialdeko ikasle nafa-

ertso

rren belaunaldientzat erdi mailako irakaslearen eredua dira.

Bere ibilbide profesionala paraleloa da:



D. Luis Antonio Montes Jn.

Luis Antonio Montes jauna Hizkuntza Grekoaren Katedratikoa izan zen "Ximénez de Rada" Institutuan 1942ko urriaren eta 1984ko otsaila bitartean. Halaber, zentroko Zuzendaritzaz arduratu zen 1958ko urritik 1968ko uztailera.
Miguel Ángel Ederra jauna Nekazaritzako Katedratikoa -eta, praktikan, Fisika eta Kimikako irakasleaizan zen "Príncipe de Viana" Institutuan 1943ko urriaren eta 1985eko iraila bitartean. Institutuko Idazkaritzaz arduratu zen 1949ko urriaren eta 1977ko ekaina bitartean.

Hortaz, biok aldi berean iritsi ziren garai hartan Nafarroako erdi mailako hezkuntza ematen zuten zentro publiko bakarretara, mutilentzat "Ximénez" eta neskentzat "Príncipe". Irakasle bezala ibilbide luzea eta zuzendari bezalako arras esperientzia adierazgarria izan ondoren, biek antzeko egunetan erretiroa hartu zuten, nahitaezko erretiroa hartzeko aurreikusita dagoen adinmugara iritsi zirela. Baina, biek, batik bat, ikasleei bere ikasgaiak irakatsi zizkieten eta, oraindik gehiago, begirunezko jarrera, arduratsu izateko modua irakatsi ziguten.

Luis Antonio Montes jaunak zaila edo konplexua izan zitekeena erraza egiteko bertute magistrala zuen. Letretako Batxilergoko 5. mailako eskolako aurreneko egunean "txartel bat" egiten joango ginela ohartarazten zuen: termino horrek lehendabiziko irakurketen funtsezkoa eta errazaren adiera zuen. Eta, egia esan, grekoaren gramatika eta hiztegia ulertzen erraza egiten zuen oso. Hasiera horrek modu natural batez testu zaharrak itzultzerakoan nolabaiteko erraztasuna izatera, usu erabiltzen ditugun hitz anitzen etimologia jakiteko eta kultura klasikora hurbiltzeko gogora eramaten zuen. Bestaldetik, Zuzendaria bezala, "Albin Club" izenekoa sortzea sustatu zuen, horretan eskola ostean egoten ahal zirela, eta ikasleek planteatzen ahal zizkioten eskolaz kanpoko kezkak oro ere babestu zituen. Beti irakasle zuzena tratuan eta dotorea formetan izan zen .

D. Miguel Angel Ederra Jn.

Miguel Ángel Ederra jaunari buruz bere ikasleek kontatzen dute gardenkiak edo fotokopiak ez zeuden urte haietan kleraz baliatzen zela azalpenak garatzeko, oso letra txikia baino argia zuelarik: azken emaitza arbel bikaina zen. Bere bata zuria beti zeramala, eskuak bizkarrean zituelarik, maiz komentario ironikoa ekartzen zuen begirada zorrotza zuela gogoan dute. Ikasleekin harreman erraza zuen, tratua pixka bat urruna bazen ere arras gizatiarra eta maitekorra zen, adeitsua baina konfiantza gehiegi izan gabe. Gizon jantzia, bere materian aditua, irakasle ona, justiziaz ebaluatzen zuena, zorrotza baina sen on ikaragarria zuena. Idazkari bezala, txukuntasuna, soiltasuna, ordena eta xehetasuna bere eginkizunaren ezaugarriak izan ziren.

Batak zein besteak begirunea merezi zuten: auctoritas zuten. Biak ala biak zorrotzak ziren bere helburuei zegokienez eta norberaren eginahalaren eta laneko irmotasunaren balioa irakasten zuten. Batak zein besteak, azken batean, irakaslearen lanbideari bere onenak eman zizkioten.

Bere heriotzaren aurrean, anitz gara eskerronezko sentipen zintzoa dugularik gogoan ditugunak.

Jesús de Miguel Vallés.
Plaza de la Cruz. B.H.I.

gaur

Ilundain - Haritz Berri Fundazioa

Ikastetxeak orain dela 19 urte lanari ekin zion Ilundaingo herrixkan (Nafarroa), gizartean baztertuta zeuden, jatorriko ikastetxeetan egokitzeko zailtasunak zituzten, erreferentziako eredu egokiak ez zituzten eta hainbat kasutan zailtasun ekonomikoak zituzten ikasleekin lan egiteko helburua zutelarik.

Fundazioaren barruan hainbat programa garatzen dute: Kurrikulu Egokituriko Hiru Unitate, Lanbide Hastapen Egokitutako hiru Programa, Lantegi-Eskola bat, Txertaketa

Gaur

Soziolaboraleko Zentro bat, naturako Ikasgela bat eta I.N.B.S.ren mende dauden hiru Egoitza.

Hezkuntza programak

Kurrikulu Egokitutako Unitateetara Eskolatzeko Batzordearen bidez beste zentro batzuetatik bidali dituzten 14, 15 urteko ikasleak joaten dira D.B.H. bukatzeko asmoa dutelarik. Ikasle hauek Jatorriko Zentroan eta Ilundain Fundazioan eskolatzea uztartzen dute.

Prestakuntzako ibilbideak Lanbide Hastapen Egokitutako Programetan jarraitzen du, ikasleak, oro har, horietara joaten direla. Igeltserotza, Lorezaintza eta Zurgintzako espezialitateak eskaintzen dituzte, programa honen bidez ikasleak espezialitatera hurbil daitezen eta berau ezagut dezaten nahi dutela. Edozein ikasle, 21 urtera arte eta D.B.H. titulua erdietsi ez duena, programa honetan sar daiteke.

Hemendik aurrera, ikasleek lantegi eskolan jarrai dezakete edo Lanbide Heziketan sar daitezke, azken hau egiteko sartzeko proba bat gainditu behar dute.

Gure programek duten arrakasta-maila horietako ikasle askok lanpostuak lortu ohi izateak bermatzen du, Zurgintzako Espezialitatean %100ak lana aurkitzen duela.

Ikastetxearen elementu nagusiak

Programetan sartzen diren ikasleek , hasteko, egingo dituzten jarduerak, araudia eta programan jarraitzeko gutxienekoak ezagutuko dituzte. Fase honi O Egitasmoa deitzen diogu eta ikasleen motibazioak eta interesak eta baita esparru ezberdinetan dauden arazoak ere, familiakoan, gizartekoan, eskolakoan, pertsonalean, kulturalean..., esku hartzeko plan eta diagnostiko batean jasota daudenak.

Ilundain - Harit Berri Fundazioa



Ilundain - Harit Berri Fundazioa

Mailaka aurrera egiteko proposamena eskaintzen diete autonomia, etekin, erantzukizun, garbitasun-ohitura, puntualtasun, begirune... eta abarreko alderdietan hobetzen duten heinean. Bere aurrerapenak eta maila gainditzea dela eta ezagutu eta sarituko dituzte.

Horretarako guztietarako, metodologia praktikoa aplikatzen dute, bertan Ingurumenarekiko lotura lehenesten dutela eta jarduera erakargarri eta motibagarriak egiten dituztela.

Tutoretza garrantzizkotzat eta giltzarritzat hartzen dugun elementuetako bat da. Ikaslearekin lotura pertsonala egitea ahalbidetzen du hurbiltasun eta konexio afektiboan oinarrituta aurretik aipatutako esku hartzeko diagnostiko eta plan pertsonalizatuaren jarraipena eta bilakaera egin ahal izateko. Tutoretzak, era berean, familiekin lotura erregularra izatea ere ahalbidetzen du, horri garrantzi handia ematen diogula. Izan ere, eginkizuna eskolatik haratago doala ulertzen baitugu eta, hortaz, hauekiko konplizitatea behar-beharrezkoa da proposatutako helburuak lortzearren.

Ikasleekin afektuzko hurbiltasun eta harremanak ez du galarazten ikastetxe edo zentroak arau argiak izatea, horiek nahitaez bete behar dituzte eta ez betetzeak ondorio zehatz batzuk ekarriko ditu. Arauak eta baita ondorioak ere betetzeko beharra ikasleengan finkatzea hezkuntza-elementua dela uste dugu.

Zentroak baliabide anitz ditu, horiek aurreko guztia abian jartzea eskatzen dutela: ingurune naturala, ongi hornitutako tailer batzuk, etxe-abereen granja bat eta profesional-talde gogotsua laguntzen duen ekipo teknikoa.

Gure web orria ezagutzera www.fundacion-ilundain.com edo gure posta elektronikoan fundación@fundacion-ilundain.com zuen inpresioak helaraztera eta baita gure Zentroa bisitatzera gonbidatu nahi zaituztegu.

Ilundain-Haritz Berri
Fundazioaren irakasleen ekipoa.

rents

Artikulu hautatu batzuk.

• *"El Consejero de Educación en el Parlamento"*. Ikasle etorkinen kopurua %30 handitu da eta 5.000tik 6.700ra igaro da. *Diario de Navarra 2003/10/25.*

• *"Aumenta el número de estudiantes por vez primera desde hace 15 años"*. Aurten 8.352.709 ikasle egongo dira, iragan ikasturtean baino 23.787 gehiago. *Diario de Noticias 2003/9/9.*

• *"La Apyma de Villafranca integra a los niños inmigrantes a través de actividades de ocio"*. La Caixa fundazioak programa hau diruz lagundu du 6.000 euro eman dituela. *Diario de Navarra 2003/11/12.*

• *"Aprendiendo un idioma"*. José María Iribarren zentroak atzerritarrentzako alfabetatze eta gaztelaniazko eskolak ematen ditu. *Diario de Noticias 2003/8/31-11-28.*

• *"Los alumnos que escogen estudiar FP superan ya a los de Bachillerato"*. Irakaskuntza Ertainen ia 15.000 ikasleek atzo aurtengo "ikastetxera itzultze" mailakatua bukatu zuten inolako arazorik egin gabe. *Diario de Noticias 2003/9/19.*

• *"La mitad de las alumnas del taller de construcción se ha colocado"*. Parte hartu zuten 15 pertsonak langabezian zeuden eta 25 eta 44 urte bitartekoak ziren. *Diario de Noticias 2003/11/22.*

• *"La indisciplina escolar"*. Editoriala. *Diario de Navarra 2003/8/28.*

• *"Comodidad, descansar periódicamente y repasar"*. Azterketetarako gomendioak. Javier Lavilla espezialistak nola ikasi aholkatzen du. *Diario de Noticias 2003/8/6.*

• *"Mensaje con motivo del Día Mundial del Docente"*. Maisu eta irakasleei eskerrak eman nahi dizkiegu, horiei gizarteak munduko zailen den eta erantzukizun gehien eskatzen duen zereginetako bat eman baitie. *Diario de Noticias 2003/10/14.*

• *"FETE-UGT pide profesores que eduquen en valores"* Espainiako Eskola 2003/10/2.

• *"Innovación en las aulas"*. Maristas ikastetxeak lehiaketan batean hezkuntzako berritasunen bat sartzen duten hiru irakaskuntza-proiektu saritu ditu. *Diario de Navarra 2003/11/23.*

• *"El Colegio San Agustín no podrá usar nunca más sus instalaciones"*. Egituran egon den akats batek urtea Jaso Ikastolan igarotzera eta etorkizunean desagertzea edo kooperatiba bilakatzea pentsatzera eraman du. *Diario de Noticias 2003/28/8.*

• *"Los docentes de San Agustín cuentan con un proyecto viable de nuevo colegio"*. Kooperatiba bat eratuko dute, orube eta azterlan arkitektonikoaren izapideak egiten ari dira eta guraso gehienen babesa lortzea espero dute. *Diario de Noticias 2003/11/14.*

• *"Un colegio de Tudela prueba un programa que limita y controla el acceso a Internet"*. Gehien bat orrialde pornografikoak hartzen ditu eta Kaskanteko enpresa batek merkaturatzen du. *Diario de Navarra 2003/11/15.*

• *"Seis centros escolares obtienen el sello de excelencia de bronce a la calidad"*. Hiru institutu, bi ikastola eta Bigarren Hezkuntzako zentro bat saritu dituzte. Kalitatearen aldeko Nafarroako Fundazioak sei urtetan egindako lana aitortu die. *Diario de Navarra 2003/11/16.*

• *"El colegio Jesuitas de Pamplona obtiene el sello ISO de calidad en la educación". Diario de Navarra 2003/9/24.*

• *"El IES Plaza de la Cruz imparte cursos formativos para adultos"*. Urriaren 10ean hasi ziren eta lau hilabetez behin emango dituzte. Ekimena oso berria da Bigarren Hezkuntzaren esparruan. *Diario de Navarra 2003/9/5.*

• *"Los empresarios navarros rinden homenaje a los Salesianos"*. Lanbide Heziketako eskolak Nafarroan dagoenetik 75 urte bete ditu. *Diario de Navarra 2003/11/4.*

• *"El Secretario de Estado confirma la reestructuración"*. Maisutza lau urteko Lizentziatura izango da 2005-06 ikasturtetik aurrea. *Magisterio Español. 2003/11/12.*

• *"Hasta en los mejores colegios hay piojos; no se pueda evitar"*. Maisuaren eginkizuna funtsezkoa da parasitosia eta baita beste edozein gaixotasun ere detektatzerakoan. *Magisterio Español- Suplemento Especial- Educación para la Salud. 2003/11/5.*

iblio

• "Poetas Navarros del Siglo de Oro". Carlos Mata Induráin jaunaren edizioa eta hautapena, doktorea Filosofia Hispanikoan eta Nafarroako Unibertsitateko irakaslea.

• "Dossier de Herramientas". Eskolako espazio arkitektonikoen kalitatearen adierazleak. Organización y Gestión Educativa aldizkaria, 4. zkia. 2003ko uztaila-abuztua.

• "Absentismo escolar". Cuadernos de Pedagogía, 327. zkia. 2003ko iraila.

• "Una música diferente". Cuadernos de Pedagogía, 328. zkia., 2003ko urria.

• "La integración del alumnado inmigrante". Revista Aula, 126. zkia., 2003ko azaroa.

• "Inmigración y Adolescencia". Miguel Siguan. Paidós Unibertsitate Sustapeneko Saila.

• "Las políticas de migraciones internacionales" Lelio Mármora. Paidós Ed.

• "Regards sur l'education". Les indicateurs de L'OCDE. 2003ko Txostena.

• "Extranjeros en el purgatorio". Etorkinen gizarteratzea tokiko espazioan. Miguel Laparra. UPNA.

• "Informe anual de la defensora del pueblo de Navarra". 2002.

• "Plurilingüismo en Madrid". Etorkinak diren ikasleen hizkuntzak lehen Hezkuntzan. Peter Broder eta Laura Mijares. HZM.

• "Estadísticas de la Educación en España. 2001-2002". Unibertsitatekoak ez diren Irakaskuntzen Estatistika. Hezkuntzako Gastu publikoaren Estatistika. Aurrerapen Datuak Avance. HZM.

• "Ley Orgánica de Calidad de la Educación". HZM.

eger

Hezkuntzako Kalitateko 10/2002 Lege Organikoa. (BOE, 2002. urteko abenduaren 24ko 307.zkia.).

Legearen edukia hobeki ulertzeko asmoz, jarraian bere edukiaren laburpena eman dugu.

Legeak hitzaurrean adierazten du iragan mendeko azkeneko herenean Espainiako hezkuntza-sistemaren aurrerapen kuantitatibo eta kualitatibo handia gertatu da. Hala ere, zuzendu behar dituzten gabezia handiak sortu dira: DBHren amaieran ikasle anitzek eskola uzten dute, ezagupen-maila ez da egokia, irakurtzeko ahalmenean gabeziak daude, hezkuntza ez dute haurtzaroaren lehendabiziko urteetara eta pertsona helduengana zabaldu. Gainera, Espainia Europako Batasunean sartzearekin eta inmigrazioaren gertaera berriarekin lotutako premia berriak agertu dira.

Sistemaren kalitatearen hobekuntza bost ardatz nagusiren inguruan artikulatzen du:

- Ahaleginaren balioa eta begirune, diziplina eta beharraren kontzeptuetan.
- Irakasleak, ikasleak eta zentroak ebaluatzeko prozesuak areagotzea.
- Antolaketa malgua.
- Irakasleei buruz gizartean duten iritzia.
- Zentroen autonomia.

I. tituluak sistemaren egitura maila eta etapetan zehazten du. Sistema hauetan antolatzen du:

- 0 eta 3 urte bitarteko Eskolaurreko Hezkuntza. Ez da derrigorrezkoa, ezta doakoa ere eta hezkuntza eta laguntza ematen dituela zehaztu dute.
- 3 eta 6 urte bitarteko Haur Hezkuntza. Borondatezkoa eta doakoa da. Horretan ikaslea irakurketa, idazketa eta kalkuluaren tekniketan hasten da.
- Oinarrizko Hezkuntza derrigorrezkoa eta doakoa da eta bi etapetan eratuta dago: Lehen eta Bigarren Hezkuntza.

Lehen Hezkuntza bi urteko hiru ziklotan antolatuta dago. Ikaskuntzaren tresna batzuen oinarri solidoak finkatzen ditu, idazketa, irakurketa, kalkulua eta atzerriko hizkuntza. Horretaz gain, gizarte-bizitzarako funtsezko azturak irakasten ditu.

Bigarren Hezkuntza lau urtetan antolatuta dago; aurreneko bietan modalitate bakarra dago; hurrengo bietan hainbat modalitate daude ikasleen interesei, espektatibei eta gaitasunei hobeki kasu egiteko (bi modalitate 3. mailan, hiru modalitate 4. mailan). Etapako helburuak lortzen baldin badituzte Bigarren Hezkuntzako Graduatu Titulua eta, horrela ez bada, eskolatzearen ziurtagiria erdiesten dute.

Bi hauen diagnostiko-ebaluazioa egin behar dute, ebaluazio horrek ez du balio akademikorik izango, informatibo eta orientatzailea baizik.

Ikasleei etengabeko ebaluazioa egingo diete eta horrek Lehen Hezkuntzako mailan, behin bakarrik, etapan urtebete gehiago egoteko aukera emango du. Bigarren Hezkuntzako mailan mekanismo horiek behin bakarrik maila errepikatzeko dira ez baldin badituzte helburuak betetzen.

Lanbide Hastapeneko Programak, bi urteko iraupena dutenak, etapa honetan hezkuntza-sistema arbuiatzen duten ikasleei eskaintzen dizkiete. Graduatu titulura edo ziurtagirira eramaten du, segun eta etapako helburuak lortzen dituzten ala ez.

- Batxilergoa bi urtetan eratuta dago, hiru modalitate eskaintzen ditu eta amaierako proba orokorra gainditzekotan, Batxilergoko titulua eskuratzen dute.

Legea aukera-berdintasunaren printzipioari dagokio; atzerriko ikasleei, ikasle supergaituei eta, bereziki, hezkuntzako premia bereziak dituztenei arreta eskaintzen die. Hauei dagokienez, ez diskriminazioko printzipioekin bat etorriz, hezkuntzako normalizazioa eta eskolatzea ohiko ikasgeletan, ohiko zentroetako espezializatuetan, hezkuntza berezikoetan edo bietan aldi berean izan ahalko da.

II. titulua hizkuntzak irakasteari buruzkoa da.

III.a pertsona helduei dagokie. 18 urte baino gehiagokoek Bigarren Hezkuntzako graduatu titulua eta 21 urte baino gehiagokoek Batxilergo titulua lortu ahal izan dezaten hainbat proba zehatz ezarri dituzte.



Navarro Villoslada, B.H.I.

IV. titulua irakasleei dagokie eta **V.a** ikastetxeei buruzkoa da. Horiei autonomia pedagogikoa ematen diete, horri esker kurrikuluko espezializazioa eskuratu ahal izango dute, bere izendapen generikora gehitu ahalko dutena. Autonomiak antolatzeko eta ekonomiako alderdiak ere hartzen ditu.

Gobernu-organoak eta ikastetxe publikoek horien kontrol eta kudeaketan duten parte hartzeko organoak zehazten dituzte. Gobernu-organoak zuzendariak eta bere zuzendaritza-taldeak osatuta daude; partaidetza-organoak, berriz, honako hauek: Eskola Kontseilua eta Klaustroa. Gainera, B.H.I.etan koordinazio-organoak finkatzen ditu.

VI. tituluak hezkuntza-sistema ebaluatzea agintzen du, hiru mailetan eratuta dagoena. INECSE erakundeak egingo du oinarrizko irakaskuntzaren diagnostiko-ebaluazioa. Autonomietako administrazioek diru publikoz lagundutako ikastetxeen ebaluazioa egingo dute. Zentroek urtero bere jarduera ebaluatuko dute.

VII. titulua ikuskapenari buruzkoa da, hau ezinbesteko gauza da sistemaren hobekuntza eta irakaskuntzaren kalitatea bermatzeko asmoz, besteak beste.

Egokiak diren Xedapen Gehigarriak eta Azkenekoak agindu dituzte. Xedapen Indargabetzailea neurri handi batean honako lege hauei dagokie: 14/1970 (Hezkuntza eta hezkuntzaren erreformaren finantzaketari buruzko Lege Orokorra), 29/1981 (Hizkuntza Eskola Ofizialen Sailkatzeari eta irakasle-taldea zabaltzeari buruzkoa), 8/1985 (Hezkuntzaren Eskubidearen Antolamenduari buruzko Legea), 1/1990 (Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorrerako Legea) eta 9/1995 (Ikastetxeen Partaidetza, Ebaluazio eta Gobernuari buruzko Legea).

Legeak oinarrizko izaera du eta bere oinarrizko garapena honakoa izan da:

- Ekainaren 22ko 827/2003 E.D., (B.O.E. 154.zkia., 03/06/28koa). LOCE ezartzearen egutegia.
- 828/2003 E.D.(BOE, 156.zkia., 03/07/1ekoa). Eskolaurreko Hezkuntzaren oinarrizko hezkuntza-alderdiak.
- 829/03 E.D. (BOE, 156.zkia., 03/07/1ekoa). Haur Hezkuntzaren irakaskuntza komunak.
- Ekainaren 27ko 830/03 E.D. (BOE, 157.zkia. 03/07/2). Haur Hezkuntzaren Irakaskuntza Komunak.
- Ekainaren 27ko 831/03 E.D. (BOE, 158.zkia, 03/07/3). Irakaskuntza Komunak eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren antolamendu orokorra.
- Ekainaren 27ko 832/03 E.D. (BOE, 159.zkia, 03/07/4koa). Irakaskuntza Komunak eta Batxilergoaren antolamendu orokorra.

eger

• Uztailaren 18ko 942/03 E.D. (BOE, 182.zkia., 03/07/31koa). Lanbide heziketa espezifikoko teknikari eta goi mailako teknikariaren tituluak eskuratzeko probak.
• Uztailaren 28ko 272/2003 F.D., (NAO, 108.zkia., 03/08/25ekoa) irakaskuntza espezializatuen goi mailako zikloa antolatzen duena.
• Uztailaren 18ko 944/03 E.D. (BOE, 182.zkia., 03/07/31). Erregimen bereziko hizkuntzen irakaskuntzaren egitura.
• Irailaren 19ko 414/2003 F.A., (NAO, 133.zkia., 03/10/17). 2003/2003 ikasturterako urrutiko eta zuzeneko irakaskuntzako erregimeneko pertsona helduen oinarrizko hezkuntzaren I., II, eta III. mailako irakaskuntzei buruzko jarraibideak.
• Uztailaren 18ko 943/03 E.D. (BOE, zkia. 03/07/18). Ikasle supergaituentzako ikasketen iraupena malgutzea.
• Urriaren 17ko 452/2003 F.A. (NAO, 145.zkia., 2003/11/14) . Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren ikasleen ebaluazioa

Loce Aplikatzearen Egutegia: Ekainaren 22ko 827/2003 E.D., (B.O.E. 154.zkia., 203/6/28koa).

Dekretuak Hezkuntzaren Kalitateari buruzko Legearen 1. X.G. garatzen du. Legea ezartzeko egutegia zehazten du eta bost urteko denbora-tartea ezartzen du. Indarrean dagoen hizkuntzen irakaskuntzen ikasketa-planarekin mailaka amaitzea eta dagozkien kurrikuluak ezartzea finkatzen du. Bukatuko den hizkuntza-planarekin egindako urteen baliokidetasun akademikoa argitzen du. Era berean, erregimen orokorreko irakaskuntzen ezarpena eta Legeak eragindako tituluen baliokidetasuna araupetzen ditu. Hezkuntza-itunak Legearen 6.X.A.ren arabera eraldatzea ere zehazten du.
Oinarrizko izara duen araua da.

IRAKASKUNTZA KOMUNAK

	Eskolaurr. Hezkuntza			Haur Hezk.			Lehen Hezkuntza						D.B.H.					Batx.			L.T.P.	
Mailak	1º	2º	3º	1º	2º	3º	1º	2º	3º	4º	5º	6º	1º	2º	3º	4º	Tít.	1º	2º	Tít.	1º	2º
Urteak ikasleak	0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12	13	14	15		16	17			
2004/2005	Hasiko da																					
2005/2006																						
2006/2007	Bukatuko da																					

BESTELAKO GAIAK

2003/2004	• Oinarrizko hezkuntza-alderdiak eta irakaskuntza arruntak finkatzea (8.2. eta 10. art.) • DBHren ebaluazio, sustapen eta titulazioari buruzko Legearen 28., 29. eta 31.2. artikuluak aplikatzea. • Haur hezkuntzaren hezkuntza-itunen salbuespenezko eraldaketa. • DBHren sustapen eta tituluari buruzko Legearen 29.3 eta 31.2 artikuluetan aurreikusitakoa garatzea.
2005/2006	• Haur hezkuntzaren 1. zikloaren itunak Eskolaurreko hezkuntzaren itun bihurtzea. • Haur hezkuntzaren 2. zikloaren itunak Haur hezkuntzaren itun bihurtzea. • E.L.H. eta G.L.H. itunak Batxilergoari dagozkion itun bihurtzea. • Gizarte-garantiako Programen itunak L.T.P. edo E.L.H. bihurtzea • Batxilergoko itunak E.L.H. edo G.L.H. itun bihurtzea.

HIZKUNTZEN IRAKASKUNTZAK

Egutegia	**Oinarrizko maila**		**Erdiko maila**		**Goi-maila**	
Ikaskurtea	**1**	**2**	**3**	**4**	**5**	**6**
2005/2006	Irakaskuntza arruntak ezartzea, Legearen 8.2. artikulua.					
2006/2007						
2007/2008						

HIZKUNTZEN IKASKETEN BALIOKIDETASUNAK

Aurreko irakaskuntzak. Irailaren 2ko 967/1988 Errege Dekretuak ezarritako Plana	**Irakaskuntza berriak**
Oinarrizko zikloaren 1. kurtsoa	Oinarrizko mailaren 1. kurtsoa
Oinarrizko zikloaren 2. kurtsoa	Oinarrizko mailaren 2. kurtsoa
Oinarrizko zikloaren 3. kurtsoa eta oinarrizko zikloaren ziurtagiri akademikoa	Erdiko mailaren 1. kurtsoa
Goi-mailaren 1. kurtsoa	Erdiko mailaren 2. kurtsoa
Goi-mailako zikloaren gaitasun-agiria	Goi-mailaren ziurtagiria

16.zk
2004

Editor

Estatuko eta Autonomietako Eskola Kontseiluen XIV. Topaketen Ondorioen laburpena. Salamanca, 2003. urteko maiatzean.

"Inmigrazioa eta hezkuntza. Hezkuntza Erkidegoaren Eskuartzea"

2. zatia (Lehendabiziko zatia aurreko 15. zenbakian argitaratu zuten).

Oharra: XIV. Topaketen Ondorioen eta Nafarroako Eskola Kontseiluak egindako txostenaren testu osoa gure web orrian kontsultatzen ahal dute : www.pnte.cfnavarra.es/consejo.escolar.navarra

XIV. Topaketen laburpen honen lehenengo zatian emigrazioak Espainian aldaketa demografiko handiak eragin dituela baieztatzen genuen, aldaketok garapen sozial eta kulturalari buruzko erronka handiak ekarriko dituztela. Besteak beste, Giza Eskubideen testuinguruan aukera-berdintasuna eta kultura artekotasuna bermatuta egongo diren gizarte bidezko eta solidarioagoa lortzeko kultura-aniztasuna geure gain hartu eta bideratu behar dugu.

Erronka horiek hainbat oinarri orokor (1. zatiaren laburpenean adierazi zituzten) eta inmigrazioari, informazioari, zabalkundeari eta sentsibilizazioari buruzko politika orokorreko zenbait ekintza definitzea eta errespetatzea eskatzen dute (biak laburpenaren lehen zatian zabal zehaztu dituztela).

Ekintza horiek ikastetxean ere garatu behar dituzte, irakaskuntza-ikaskuntzari dagokionez jarduketei eragin behar dizkiete, Hezkuntza-komunitatearen partaidetza eta heziketa, eskolako programa eta material zehatzen diseinua sustatu behar dituzte, eta giza baliabideak, baliabide materialak eta ekonomikoak aplikatzea agindu behar dute. Biztanle etorkin heiduen hezkuntza-premiak ere ezin ditugu ahantzi.

Azkenik, jarduera hauek guztiek ebaluatzeko prozesu objektiboa izan behar dute, horrek adierazle zehatzak izan behar dituela. Hori guztia eskola kultura arteko hezkuntzaren esparru funtsezkoetako bat delako arautu gabeko hezkuntzako bestelako batzuekin batera. Hala ere, hain konplexua den proposamen hau aurrera eramateko egiazko gaitasuna ematea beharrezkoa da. Hori dela-eta, autonomia ezinbesteko elementua da ikastetxeetako jarduera orientatzeko, izan ere, ingurunearekin harreman malguagoa izatea ahalbidetzen baitu eta etorkinen premia zehatzei egokituago dauden hezkuntzako erantzunak sortzea errazten du, halaber, hezkuntzako kalitatearen kudeaketa eragingarria izan dadin lortzeko oinarrizko baldintzetako bat ere bada.

Eskolako kultura autonomo honen esparruan ikasle hauen premiei kasu egiteko egitasmo zehatzak garatzea eta sortzea sustatu behar dute. Horretarako, Administrazioa aipatutako proiektuak diseinatzeko, gauzatzeko eta baloratzeko prozesuan hasiera batetik inplikatuta egon dadin behar-beharrezkoa da.

Eskolako kultura arteko etika gizarte demokratiko eta solidario baten berezkoa da eta begirunean eta elkarrizketan hezita dauden herritarrak lortzeko oinarriak jartzen ditu. Jatorriko kultura errespetatzea beharrezkoa da, kultura artekotasunak hartzen duen gizarteari eta etorkinei eragiten baitie. Horren ondorioz, elkar aberastea errazten duten neurriak hartzea beharrezkoa da, jatorriko kulturen partaide ere izango garela eta beren alderdi antropologikoak, hala nola bere erlijioa, hizkuntza, ohiturak, elikadura, gizarte-harremanak,... etab., kontuan hartzen ditugula. Errealitate hori ikastetxeetako erakunde-planteamendu ezberdinen bidez zehaztu behar dute: Hezkuntza Proiektua, Kurrikuluko Proiektua, ,,, etab.

Ikastetxeak ikastetxearen planteamendu global eta mal-

Nafarroako Eskola Kontseilua
Aldizkari Berri-Emailea
eskolarra